



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.05.26an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
UNAI ELKORO OIANGUREN
AINHOA CABERO GARCIA
MARIA UBARRETXENA CID
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

ARITZ MURUA ACHA
EUGENIO OTSOA UGALDE

ARRASATE
LEINTZ-GATZAGA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrean ezarritakoarekin bat etorriz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituena, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren ohiko bilkura hau bideokonferentziaren bidez egiten da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz, 2020ko maiatzaren 26an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, eta goian aipaturikoak bertan direla.

Gobernu Juntaren bilkura hasi aurretik, Aritz Otxandianok D2030 egitasmoaren aurkezpena egin du.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2020ko apirilaren 28an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Mankomunitatearen erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzeko espedientea; proposamen bakarra

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Mankomunitatearen erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzeko espedientea, gastua eta Administrazio-Klausula Berezien eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze prozedura irekitzea erabaki zuen.

Kontratu hau bi loteetan banatu zen:

- 1. LOTEA: Ondarezko Erantzukizun Zibileko Asegurua, Mankomunitateari – jabari publikoko eta ondarezko ondasunen titular gisa eta zerbitzu publikoen emaille gisa– hirugarrenen aurrean egotz dakioken erantzukizunaren gainekoa, turismoaren inguruan ekitaldi publikoak antolatzearen ondorioz egotz dakioken erantzukizuna barne; horien artean: bisita gidatuak, bildotsak burruntzian erretzea, ikuskizunak, mendi ibiliak, etab.
- 2. LOTEA: Ingurumen arloko Erantzukizun Zibileko aseguruak, Mankomunitateari, Epeleko hondakin ez-arriskutsuen hondakindegian izan litezkeen kalteen ondorioz, egotz lekioken erantzukizunaren gainekoa.

Horretarako emandako epean proposamen bakarra aurkeztu da 1. loterako, MAPFRE ESPAÑA, S.A. Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. enpresarena. 2. loterako berriz, ez da proposamenik aurkeztu.

Lizitatzailerak bere "B" gutun-azal elektronikoan jasotako proposamen ekonomikoa eta balorazio automatikoko beste irizpide batzuei buruzko dokumentazioa aztertu eta aurkeztutako proposamenak pleguetan jasotako baldintza guztiak betetzen



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

dituela egiaztatu ondoren, Kontratazio Mahaiak, kontratu honen 1. lotea aipatu enpresari esleitzea proposatzen du, esleipenerako dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta 2. lotea huts deklaratzeko.

Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. MAPFRE ESPAÑA, S.A. Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. enpresari hamar egun balioduneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 18, 4º klausulan jasotako dokumentazioa aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.
3. Kontratuaren 2. lotea berriro huts deklaratzeko.

3.- INGURUMENA

3.1.- Eraikuntza eta eraispeneko obra hondakinak kudeatzeko kontratazio espedientea

Mankomunitateak garbiguneetan eta bestelako bilketa zerbitzuetan jasotako obra txikietako eraikuntza eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

3.2.- Epeleko zabortegean gas emisio eta inmisio neurketak egiteko kontratazio espedientea

Epeleko hondakin ez arriskutsuen zabortegean atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3.3.- Txatarra saltzeko NAPARRA BERGARA, S.L.U. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2018ko uztailaren 27an sinatu zuen Mankomunitateak NAPARRA BERGARA, S.L.U. enpresarekin Garbiguneetan eta bere beste instalazio batzuetan jasotako hondakin metalikoak (txatarra) saltzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da bi urteko iraupena izango duela, 2018ko irailaren 1etik aurrera, eta urtero luzatu ahal izango dela, gehienez zortzi urtez, hasierako denboraldia barne.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2021eko abuztuaren 31 arte.

3.4.- Traste zaharrak kudeatzeko ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2018ko abuztuaren 16an sinatu zuen Mankomunitateak ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresarekin Garbiguneetan eta Mankomunitateko beste zerbitzu batzuetan jasotako bolumen handiko etxe hondakinak kudeatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da bere iraupena bi urtekoa izango dela, sinatzen den egunetik aurrera, eta beste bi urtez luzatu ahal izango dela.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2 artikulua araberak, luzapen hau nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bazaio.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua beste bi urtez luzatzea, hau da, 2022ko abuztuaren 15era arte.

3.5.- Etxeko hondakinak biltzeko Ordenantzaren aldaketa

Bideratu den espedientea ikusita eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ondorengo ERABAKI DU:

1.- Hasierako onespina ematea Etxeko Hondakinak Biltzeko Ordenantzaren ondorengo aldaketari:

II Eranskinean, “Garbiguneetako Hondakinen Zerrenda eta mugak”, onartuko diren hondakinen artean, honako hau sartzea:

- ***Motordun ibilgailuen gurpilak: automobil edo motoetako gurpilak, urtean gehienez erabiltzaileko 4 unitate arte.***



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.- Erabaki hau eta honetaz bideratu den espedientea informazio publikorako ikusgai jartzea 30 lanegunez, iragarkia Mankomunitateko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko delarik, interesatuek bidezko iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Informazio publikoko denboraldi horretan ez bada inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, hasierako onespena duen erabaki hau behin betiko onartutzat joko da.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

3.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; eskaera berri bat

- A.G.A.

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren industri modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: arotzeria metalikoko produktuak, instalazioa eta konponketa.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- A.G.A. ekintzaileari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (5-IM) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- D2030 egitasmoa sustatzeko eragileen arteko lankidetzaren hitzarmena

D2030 egitasmoari buruzko aurkezpena egin ondoren, eta gai hau lasai aztertu ahal izateko, lehendakariaren proposamena jarraituz, erabaki da mahai gainean uztea Gobernu Juntaren hurrengo bilkurara arte.

5.2.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

20/28.- Hasiera eman dakiola aurreko ekitaldiko aurrekontuko ordainketa kredituak ekitaldi honetako aurrekontuan txertatzeko espedienteari, aipatutako xedapenetan



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

jasotako erregulazioari jarraiki. Honako tramiteak jasoko ditu espedienteak: Kontu-hartzailearen txostena eta organo eskudunaren onarpena.

EGINBIDEA.- Mankomunitate honetako Kontu-hartzaileari dekretu hau data honetan helarazi zaiela jasota uzteko.

20/29.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteak, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2020-KALD-000002-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
1	PERTSONAL GASTUAK	1.462,14
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	1.098.004,52
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	110.803,49
6	INBERTSIO ERREALAK	39.582,90
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		1.249.853,05

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	1.249.853,05
FINANTZAKETA GUZTIRA		1.249.853,05

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaileak Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

20/30.- Datorren maiatzaren 11tik aurrera, Nafarroa Etorbideko 17an eta 19an dauden Mankomunitatearen lokal eta instalazioak astean bi egunetan garbitzea (guztira 10 ordu).

20/31.- 20/12 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI MILA EHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA HOGEITA BI ZENTIMO (488.184,22 €).

20/32.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteak, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Kap.	Izena	Euroak
9	FINANTZA PASIBOAK	60.000,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		60.000,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	60.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		60.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Mankomunitatearen batzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Gobernu Juntako kideen legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin premiazkoztat jo ondoren, gai-zerrendan sartu gabeko ondorengo puntua aztertzeari ekin zaio.

Energia elektriko hornitzeko kontratu eratorria esleitzea

2020ko apirilaren 28ko Gobernanzako foru diputatuaren Foru Aginduaren bitartez erabaki zen IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. enpresarekin burutzea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeako esparru akordioa"

Mankomunitate honi dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura hau interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin araber, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua esleitzea, sinatutako Esparru Akordioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. enpresari esleitzea, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektriko hornitzeko esparru akordiotik eratorritako kontratua, 2020ko ekainaren 1etik aurrera, sinatutako esparru akordioaren baldintzetan.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

BIGARRENA.- Kontratu honi dagokion gastuari aurre egiteko hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar diren kredituak erreserbatzea.

6.- GALDE-ERREGUAK

Ez dago galde-erregurik.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA